

BANAKETA

LIMUn banaketa-kanal zuzenak erabiliko ditugu bezeroengana iristeko, denda fisikoa eta webgunea elkarrekin erabiliz. Bilbon izango dugun denda fisikoak aukera emango die bezeroei produktu errealak ikusi eta arreta pertsonala jasotzeko, eta horrek konfiantza handiagoa sortuko du. Bestalde, webguneak eta gure aplikazioak urrun bizi diren bezeroei ere eroso eta azkar erosteko eta beren espazioa neurtzeko aukera emango die. Banaketa mota hau bitartekaririk gabe egitea erabaki dugu, kostuak kontrolatzeko eta prezio hobeak eskaintzeko. Bezeroek nahi dutenean eros dezakete dendan edo online. Horrela, erosketa-prozesua erraza, hurbila eta fidagarria bihurtzen dugu.